

## Musika, merkatuak, zientzia eta munduko festak Olatu Talka jaialdiaren ardatz izango dira maiatzaren 19, 20 eta 21ean

### Inaugurazio ekitaldia udaletxeko terrazan izango da 19an 20:00etan

Maiatzaren 19, 20 eta 21ean izango den Olatu Talka jaialdiaren programa aurrerapena izan da gaur, eta bertan azaldu denez, musika, merkatuak, zientzia eta munduko festak izango dira Olatu Talka jaialdiaren ardatz. Jon Aizpurua Olatu Talka jaialdiko zuzendaria, Beñat Antxustegi Physis vs Nomos taldeko musikaria, Tomas Carrascal Teknahiko kidea, Lola Boluda eta Dorleta Mikeo Ongi Etorri proiektuko kidea eta Alberto Gastón Emauseko kidea izan dira prentsaurrekoan Olatu Talka jaialdiaren lehenengo xehetasunak ematen.

Jon Aizpurua jaialdiko zuzendariak gogoratu du 2016 Kultur Hiriburutzaren ondare edo legatu gisa geratu dela jaialdia eta beraz, testuinguru berezian datorrela; testuinguru berezi eta indartsuan. Izan ere, Aizpurua azaldu duenez, "eragileek gogotsu hartu dute Olatu Talka egiteko proposamena eta askok aurkeztu dute parte hartzeko eskaera". Honen adierazle orain arteko datu batzuk eskaini ditu:

- **Programaziorako proposamenak** egiteko deialdian **160** proposamen jaso genituen eta **horietatik 120 ekimen baino gehiago egingo dira.**
- Olatu Talkako **merkatuetan** postua jarri ahal izateko deialdian **110 postu jartzeko eskaerak** jaso ditugu eta **kontzertuak eskaintzeko 60 taldek edo bakarlarik** eman dute izena. Beraz, aurreko oso arrakastatsuak izan dira bi deialdiak.
- Beste deialdi bat ere egin du Olatu Talkak, hain zuzen, **Izarrak Plazara** ekimenean parte hartzeko, eta inoiz baino arrakastatsua izan da: **12-17 urteko tartean 22 talde/bakarlarik** eman dute izena eta **5-11 urtekoetan 30 taldek.** Horietako asko Olatu Talka jaialdian ariko dira.

Bestetik, Aizpurua azaldu du webgune berria ere estreinatu duela Olatu Talkak, albiste eta ekitaldi guztien berri emateko eta esan duenez, agendak izango du garrantzia eta oso erabilgarria izango da.

Ondoren, ekitaldi zehatzak aurkeztu dituzte bertaratutakoek.

### IREKIERA EKITALDIA

#### Udaletxeko terrazan, maiatzaren 19an, 20:00etan.

Beti bezala, musikak leku garrantzitsua izango du Olatu Talkan, eta hori irekiera edo inaugurazio ekitaldian bertan sumatuko da. Musika eta belaunaldi arteko elkarbizitza izango dira ardatz. Hauxe da ekitaldiaren muina: alde batetik, Musikagelako 12 banda eta bakarlarik sortutako abestiak proposatu zituzten eta bozketan bidez haien artean lau aukeratu zituzten (2 euskaraz, 1 gaztelaniaz eta 1 ingelesez). 12 musika banda horiek lau pieza horiek eskainiko dituzte Olatu Talkan, baina ez dira horretan bakarrik ariko, izan ere, udaletxeko terrazan haiekin batera izango dira Donostialdeko hainbat abesbatzetako 400 bat abeslari eta Francisco Escudero Kontserbatorioko Big Banda. Talde horien lau abestiez gain, Itoitzen *Lau Teilatu* ere eskainiko dute, era horretan herritarrek ere abesteko aukera izango baitute.

Proiektu honetan **Eugenio Rubio** (Buenawista Prolleckziom's), **Roberto Pacheco** (Francisco Escudero), **Josu Elberdin** eta **Gorka Miranda** (Easo Musika Eskola) dabilta lanean, azkena zuzendari artistiko gisa.

### KONTZERTUAK

Esan bezala, musikak leku garrantzitsua izango du eta musikak hiriko leku asko hartuko ditu. hiriko hainbat puntutan, kalean, agertokiak jarriko ditu. Agertoki horietan ariko dira izen eman duten musikariak. Gutxi gorabehera 60 kontzertu izango dira hirian.

## ONGI ETORRI: MUNDUKO FESTEN TOPAKETA

### **Teresa de Calcuta plaza, maiatzaren 20an, arratsaldez**

Donostiako 5 eskolatan (Aitor, Intxaurren, Zuhaizti, Maria Reina eta Intxaurren Hegoa) ikasturte honetan aniztasunaren inguruko proiektu bat lantzen ari dira, kulturen arteko elkar ezagutza eta elkarbizitza lantzeko, eta Olatu Talkan programaren barruan amaiera festa egingo dute. Festa hori Euskal Herriko eta munduko hainbat lekutako festak elkartzeko ekitaldia izango da, Donostian bizi diren migratzaileen esperientzia, bizitza eta festak ezagutaraziz. Saharako haima, Ukrainiako festak, Brasilgo sanba soinua, Ghanako perkusioa, Frantziako pazko arrautzak, dantza latinoamerikarrak, Txinako dragoiak, atzerriko kaligrafiak... euskal herri-kirolekin nahasiko dira Teresa de Calcuta plazan.

## URBANZIENTZIA

### **Katalunia Plaza, maiatzaren 20an, egun osoan**

Zientzia kalera ateratzeko ekimena da Urbanzientzia, eta aurren ere egingo da Katalunia plazan, aurreko urteetan jarduerak oso harrera ona izan baitu. Teknahik zuzendutako ekimenak aurren, gainera, ezaugarri berezi bat izango du: Aranzadi Zientzia Elkarteak 70. urteurrena du eta hori aitzakia hartuta, haien lana kalera ateratzeko aprobetxatuko du Olatu Talkak. Hauetaz gain, dibulgazio zientifikoaren inguruan hainbat hitzaldi, laborategi, esperimentu eta erakusketa izango dira Grosen egun osoan.

Aranzadirekin lotuta, ekitaldi berezi bat azpimarratu nahi dugu: Aranzadikoek elefante baten hezurdura Zurriola hondartzan lurperatuko dute, herritarrek, paleontologoek gidatutako lantegi batean, hau agerian utzi, piezak sailkatu eta elefantearen hezurdura berriro muntatzeko aukera izango dute.

Bestetik, egun osoan zehar tailer interesgarriak izango dira: 3 D boligrafoak...Gauetz Astronomia eta Light Painting lantegiak ere izango dira.

## MERKATUAK

### **Kontxako arkupeak, maiatzaren 19an eta 20an, 18:00-00:00**

### **Berrerabilera merkatua, Sagastieder plaza, maiatzaren 20an, goizez**

Aurren ere merkatuek leku garrantzitsua izan dute Olatu Talkan, eta inoiz baino garrantzia handiago gainera.

Alde batetik, aurreko urteetako arrakasta kontuan hartuta, Kontxa Gaumarket egingo da berriro, baina gau bakarrean egin beharrean bi gautan egingo da, maiatzaren 19an eta 20an. Egun bakoitzean postu ezberdinak jarriko dira, beraz, bi merkatu ezberdin direla esan dezakegu. Kontxa Gaumarket proiektuaren funtsa bertako sortzaileei haien produktuak kalera ateratzeko aukera ematea da; denda fisikorik ez duten eskulangileei euren proiektuak saltzeko aukera. Aldi berean, herritarrei gune eta ordutegi berezi eta ezohikoan artisauek sortutako produktuak erosteko aukera eskaintzen zaie. Gau bakoitzean 38 bat postu jarriko dira, eta horiek izena eman dutenen artean aukeratu ditu batzorde batek. Aurtengo eskaintza oso zabala izango da.

Baina Kontxa Gaumarket ez da Olatu Talkako merkatu bakarra izango, izan ere, Intxaurrendoko Sagastieder plazan oso merkatu interesgarria jarriko da, maiatzaren 20an, goizez. Merkatu honen ardatza berrerabilera izango da, gauzei beste aukera bat ematea da merkatuaren filosofia. Filosofia horrekin bat egiten duelako Emaus fundazioak parte hartuko du merkatuan eta ekarpena egingo dio merkatuari, arlo horretako merkatu garrantzitsua izan dadin. Nagusiki lau ardatz izango dituela esan dezakegu:

- **Bigarren eskuko merkatua:** Intxaurren Auzo Elkarteak bultzatuta, bigarren eskuko gauzen merkatua izango da.
- **Donostitruk:** Donostitruk ekimeneko hainbat postu ere izango dira Sagastieder plazan, izan ere, ekimen arrakastatsu honen aurtengo maiatzeko saioa Olatu Talka jaialdiaren barruan izango da.
- **Elkartasun Liburu Azoka:** Gizartean egoera okerrean daudenei laguntzeko Kaleko Elkartasun eta Kultur Elkarteak erabilitako liburuen azoka jarriko du Sagastieder Plazan.

# OLA TU !!! TALK A !!!

- **Berrerabilera merkatua:** Berrerabilitako materialekin artea edo bestelako produktuak sortzen dituztenentzako azoka izango da, eta bertara joango diren sortzaileak hautatzeko izen ematea prozesua egin zuen Olatu Talkak eta aukeratutakoak joango dira bertara.